

# EUSKALTZAINDIA'REN

## BIGAÑEN URTEKO BATZAÑAK

---

Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundi-Yauregi'an  
1920'ko Urñila'ren 22'an.

Batzakuntza onetara euskaltzain abek etofi dira:  
Azkue, Kanpion, Urkixo, Eguskitza, Olabide, Lhande,  
Landeretxe, Intzagarai ta Lakonbe (euskaltz, au-  
tatua)

Ona emen artutako *erabakiak*:

1. Euskaltzaindiak Españako Bakaldunari igofiz  
ion idazkia argitaratu, ta Euskalerian zabaldu.
2. Euskeraren batasunaz egin bea' dan batzaña,  
gabon ingurutxurako ya'ri.
3. Odon Apraiz yaunari, bi epetan, 4.000 laurle-  
ko eman euskal-lanetarako ta Lakonbe yauna Paris'en  
artezkari izan datzaiola.
4. Lakonbe yauna Urkixo yaunaren lankide au-  
keratu, Euskaltzaindiak bea' dituen gutun-eroske-  
tarako.
5. Telesforo Arantzadi ta Torrecilla yaunen es-  
kutitzak iraku'ri dira.
6. Koruko Andre Mariaren Irakaskintza'ren la-

guntz-eskaria azaldu da, ta Euskaltzaindiak sari-gaietan laguntzea, erabaki du.

7. Azpeitiko Udalburuaren eskaria ontzak aritu, ta eñi ortako bearkolai euskal-izenak yartzeko, Euskaltzaindia arduratzen da.

8. Manuel Ayestaran yaunak, egindako *Iztegia*'ren txostena irakuri da, ta yaun onen oñordekoari galdetu letzaioke, zer nai duen *Iztegi* oregatik.

9. Gazteizko Gotzai yaunari, kristau-ikastia argitaratzeko Euskaltzaindiari txosten eske etori dalaiko, eskeñak eman; ta ikasti-azaletan oarñxo au ipiñi ditekela, erabaki du.—*Euskaltzaindiak kristau-ikasti au gaukoz zuzenetsi dau (du).*

10. Euskaltzaindiak argitaratu beark duen *Euskera* daikeyon *Boletina*'ri zer izenpeko yari beark ote zayon-go autua yo da; ta auxe erabaki da:

*Euskaltzaindiaren lan eta ageriak.*

11. Urkixo yaunak dasa, berak euskaltzaingoa usten duenerako, beronek duen Onubatzako sailburu-agoa Lakonbe yaunari eman letzayokela, ta Euskaltzaindiak bayetza dager.

12. Azkue yauna Bartzelonara yoatea ilabete edo birako erabaki da, Euskaltzaindikiko lan batzuek egin ditzan.

13. Datoñen azaroan Intza euskaltzañaren sarpi-dea izango da, batzaraldi-ondorean, edota urengo egunaz.

14. Euskaltzainburuari ematen zayo ardura Aita

Soloeta B. Aires'ko Euskal-Etxeko irakasleari Ur-gazle-izenpena igoitzeko.

15. Kanpion yaunak Napañuako Aldundiari idatzi dezayoke, Luciano Bonaparteren eskuidazkiaz.

16. Aita Zabalaren ipuñetarako Eguskitza yaunari itzaurerxo bat egotzi zaio.

17. Kanpion yaunaren aburuz, on litzake berarizko ikastetxeak iratsi dituzten euskaldun batzuei idaztea, eren ikasguetan euskera sar ta erabili dezaten: oretarako, auzer zeintzuk diran yakin-da, igori bear zaye Euskaltzaindiyaren artarakiko ardurazopena.

18. Iruñako Gotzai yaunak Azkue yaunak bializiyon idazkiari ez dio erantzupenik eman: ez baleyoke garaiz emango, Gotzai yauna beronen etxean ikusi dezakete Intza, Urkixo ta Kanpion yaunak.

---

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian  
1920'ko, Azila'ren 25 eta 26'an.**

Euskaltzain oneik batu zirean: Azkue, Urkixo, Kanpion, Olabide, Lande, Intzagarai, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe.